



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

Tokiko Agenda 2030eko ekintza plana



2020-2023

GARAPEN JASANGARRIRAKO AGENDA 2030

Garapen jasangarrirako Agenda 2030 plana, ekintza plana da, eta Nazio Batuetako estatu kideen konpromisotik sortu zen. Bere helburu nagusia, pertsonak, lur-planeta eta oparotasuna babestea dira.

2000. urtean, Nazio Batuetako herrialdeek 2015erako Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) lortzea erabaki zuten. MGHak lortzeko aldia bukatu ondoren, 2015eko irailaren 25ean, NBEren Batzar Nagusiak mundu-mailako akordio berri bat egin zuen klima aldaketari buruz. Egun horretan gertakizun historiko bat jazo zen, hain zuzen ere, munduko leku ezberdinetako 193 estatu kideek Agenda 2030 onartu zutela. Programa NBEk sustatutakoa da eta Nazio Batuen Erakundeak garapenerako ezarritako programaren barne dago. Bertan, Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) daude jasota, eta, horiek, era berean, 169 xedetan daude banatuta.

Agenda 2030 hurrengo 15 urteetarako ekintza orokorrerako deialdia da. Nazio Batuak osatzen dituzten herrialdeek, beharrezko bitartekoak erabiliko dituzte helburuak lortzeko, eta, horretarako, aliantzak egingo dituzte, bereziki, pertsona pobreenetan eta zaugarrienen artean.

GJHak garapen jasangarria lortzeko tresnak dira, eta, arlo ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa barne hartzen dute, hala, konpromisotik ekintzara igaroz. Berrikuntza eta baterako ekintza ezinbestekoak dira Garapen Jasangarrirako Helburuak ezartzeko, eta, horregatik, eragile berriek parte hartzen dute orain, hain zuzen ere, sektore pribatuak eta gizarte zibilak.

GJHak lortzeko, gobernuak hiru mailek parte hartu behar dute, modu honetan: administrazio publikoak oinarrizko egitura bateratuak ezarri behar ditu; sektore pribatua eragile erabakigarria da Agenda 2030 ezartzeko, eta, azkenik, gizarte zibila, izan ere, norbanako bakoitzaren ekintzak batzean, aldaketa ezartzea eta hurrengo belaunaldientzat etorkizun oparoa sortzea errazagoa izango da.

AGENDA 2030 GETXON

Agenda 2030ek administrazioaren maila guztietan esparru homogeneoa eskaintzen du garapen jasangarria planifikatu ahal izateko.

Udalerrien kasuan, Agenda 2030ek zenbait sektore politika barne hartzen ditu, eta garapen jasangarria sustatzen duten tokiko politikak behin betiko koordinatzeko eta zeharkako ikuspegia ezartzeko aldaketak sor ditzake.



Getxoko Udalak, Ingurumeneko Tokiko Foroak sustatuta, Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Plan berria sortu du. Udalaren plan estrategikoa da, irizpide jasagarriak eta udalerriko ingurumen, ekonomia eta gizarte politikak batzen dituena.

GJHeK, zati batean, Tokiko Agenda 21en konpromisoak jaso dituzte, eta, beraz, Getxon Tokiko Agenda 2030 ezartzean, Tokiko Agenda 21ekin jarraituko da, zeina, Getxon orain dela 16 urtetik ezarrita dagoen.

TOKIKO AGENDA 2030-EN EKINTZA PLANA

Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Planak 5 lerro estrategiko ditu, eta horiek eratzen dituzte Getxoko jasagarritasun zutabeak.

Plan horretako ekintzak, Ingurumeneko Tokiko Foroko eragile sozioekonomikoek landu dituzte. Gainera, ekintza horiek berrikusi eta aztertu egin dira eta lehentasunak ezarri dira, hori guztia, udaleko arloetako teknikariek jasagarritasuna landuz egin delarik.

Tokiko Agenda 2030eko Agenda sortzen eta horri buruz eztabaidatzen parte hartu duten udal arloak hauek izan dira: Hirigintza, Ingurumena, Azpiegiturak eta Zerbitzuak eta Komunikazioa, eta alor horretan espezializatutako enpresa baten aholkularitza jaso dute.

Nork parte hartu du plana sortzen?

Hauek dira plana sortzen parte hartu duten eragileak: Ingurumeneko tokiko foroa, udaleko arlo teknikoak eta gobernu taldeak.

Tokiko Agenda 2030eko Ekintza Planean, Ingurumeneko Tokiko Foroak proposatutako ekintza guztiak jaso dira eta udaleko arlo teknikoek aztertu eta berrikusi ondoren, azkenean, udaleko gobernu taldeak onetsi behar du plana.

Nola egiten da planaren jarraipena?

Planaren jarraipena egiteko, jarraipen plan bat dago, eta, bere helburua, ekintzen betetze maila eta horien garapena eta egikaritzea ebaluatzea da. Horretarako, adierazle batzuk aukeratu dira, eta, horiekin jakingo dugu zein mailatan ari diren betetzen itzaroten diren helburuak. Getxon erabili den Jasagarritasun Adierazleen Sistema Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eta IHOBE Ingurumeneko Sozietate Publikoak proposatutakoa da.

ILDO ESTRATEGIKOAK

**1. IE: UDALAREN
KUDEAKETA
JASANGARRITASUN-
IRIZPIDEEKIN**

**2. IE: INGURUMEN-
KALITATEAREN ARLOAN
INFORMAZIOA
ESKURATZEA ETA
HERRITARREN PARTE-
HARTZEA SUSTATZEA**

3. IE: HIRIGINTZA JASANGARRIAN AURRERA EGITEA

**4. IE: UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIODIBERTSITATEA
ETA PAISAIA BABESTE**

**5. IE: INGURUMEN-KALITATEA ETA BALIABIDEEN
ERABILPEN JASANGARRIA**

ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

1. IE: UDALAREN KUDEAKETA JASANGARRITASUN-IRIZPIDEekin

1.1. programa Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak integratzea.

- 1.1.1. E: Mekanismoak ezartzea udala jasangarritasun erreferentea izan dadin
- 1.1.2. E: Udaleko erosketa eta kontratazioko prozesuetan irizpide jasangarriak gehitzeko aurrera egitea
- 1.1.3. E: Udaleko langileen baliabide-erabilera murriztea
- 1.1.4. E: Udaleko langileak ingurumeneko eta/edo jasangarritasuneko alorrean sentsibilizatzea, gaitzea eta trebatzea
- 1.1.5. E: Ingurumen foroekin jarraitzea

2. IE: INGURUMEN-KALITATEAREN ARLOAN INFORMAZIOA ESKURATZEA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA

2.1. programa: Ingurumen kalitateko informazioa herritarrentzako eskuragarri jartzea

- 2.1.1. E: Pertsonen esku jarritako informazioa hobetzea, irisgarriago eta errazago bihurtuz

2.2. programa: Udal eragileen eta herritarren parte hartze aktiboa

- 2.2.1. E: Parte hartzeko mekanismoak finkatzea udaleko politikaren funtsezko alderdi guztietan
- 2.2.2. E: Udaleko langileei eta herritarrei parte-hartzeari buruzko prestakuntza ematea

2.3. programa: Jasangarritasun alorreko sentsibilizazioa

- 2.3.1. E: Eskolako Agenda 2030ekin jarraitzea
- 2.3.2. E: Ikastetxeek txango ekologikoak egitea korridore ekologikora / behatokitara.
- 2.3.3. E: Ingurumen gelarekin eta jardurekin jarraitzea
- 2.3.4. E: Ingurumenari buruzko informazioa hedatzea

2.3.5. E: Aste berdea sustatzen jarraitzea

3. IE: HIRIGINTZA JASANGARRIAN AURRERA EGITEA

3.1. programa: Hirigintza garapen jasangarria sustatzea

3.1.1. E: Hiri Antolamenduko Plan Orokorra jasangarritasun irizpideekin onestea

3.1.2. E: Herritarrentzako espazio berriak sortzea eta daudenen erabilera optimizatzea

3.2. programa: Etxebizitzak eta egoitza kalitatea eskuratu ahal izatea

3.2.1. E: Alokairu eskuragarria sustatzea, bereziki gazteentzat.

3.2.2. E: Udal-jabetzako hiri-lurzoruan babestutako etxebizitzak sustatzea eta eraikitzea

3.2.3. E: Etxebizitza kolaboratiboaren eredu berriak ezartzea

3.2.4. E: Etxebizitza hutsen erabilera sustatzea

3.2.5. E: Etxebizitzen eraberritzea eta hiri birsorkuntza bultzatzea

3.3. programa: Eremu berdeak hobetu eta garatzeko programa

3.3.1. E: Lorezaintza naturalagoa eta ekologikoagoa ezartzea

3.3.2. E: Plazetan berdeguneak, lorategiak eta zuhaitzak zabaltzea

3.3.3. E: Parkeetan erakargarritasunak sortzea udalerriko balio naturalak nabarmentzeko

3.3.4. E: Parkeak eta bertako altzariak mantentzea

3.3.5. E: Etxeko animalientzako espazioak erraztea

3.4. programa: Mugikortasun jasangarria bultzatzea

3.4.1. E: Bidegorrien sarea handitzea eta hobetzea

3.4.2. E: Norbere mugikortasunerako ibilgailuen erabilera erraztea eta arautzea

3.4.3. E: Patinete elektrikoak alokatzeko sistema ezartzea

3.4.4. E: Udalerriko trafikoa hobetzea

3.4.5. E: Eskola-bideak sustatzea, segurtasuna hobetuz

3.4.6. E: Bizikleta pribatuentzako aparkalekuen sistema eta bizikleten alokairu publikoko sistema sustatzea (Getxobizi)



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

3.4.7. E: Aparkalekuen kudeaketa eta garapena hobetzea

3.5. programa: Irisgarritasun jasangarri unibertsalean aurrera egitea

3.5.1. E: Oinezkoei lehentasuna emateko hirigintza berrurbanizazioa

3.5.2. E: Administrazio eta merkataritza zentroen eta hondartzen konexio irisgarriak

4. IE: UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTEA

4.1. programa: Itsasertza babestea eta berreskuratzea

4.1.1. E: Itsasertza kontserbatzea, berritzea eta mantentzea

4.1.2. E: Balio geologikoak ezagutzera ematea

4.1.3. E: Galeako txilardiak berreskuratzeko proiektua garatzea

4.1.4. E: Azkorri inguruan apo lasterkaria babesteko lanekin jarraitzea

4.2. programa: Bolue eta ur ekosistemak babestu, hobetu eta sustatzea

4.2.1. E: Hezegunea babesteko lanekin jarraitzea

4.2.2. E: Bolue, Bolueko haranera, korridore ekologikora eta Gobela ibaian urak har ditzakeen azpiegituretara zabaltzea

4.2.3. E: Anfibioentzat hezeguneak gaitzea eta lehengoratztea

4.2.4. E: Hezegunea ezagutarazten jarraitzea

4.3. programa: Natur interesa duten eremuak berreskuratu eta babestea

4.3.1. E: Flora eta faunaren inbentarioak

4.3.2. E: Eremu naturalen inbentarioa

4.3.3. E: Herritarrentzako informazio eta prestakuntza kanpainak, inguru naturalari eta hura mantentzeko buruz

4.3.4. E: Landare inbaditzaileak, esate baterako, panpa-lezkek eta espartinak

4.3.5. E: Azpiegitura berdeak sustatzea

4.3.6. E: Bidexka sarea sortzea

5. IE: INGURUMEN-KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILPEN JASANGARRIA

5.1. programa: Klima aldaketaren aurkako borroka

5.1.1. E: Klima aldaketaren aurkako udal plana sortzea

5.2. programa: Uraren aurrezpena sustatzea

5.2.1. E: Hornidura eta saneamendu sareak hobetzeko jarduketak

5.2.2. E: Udalerrian ura aurrezte

5.2.3. E: Herritarrek ura aurrezte sustatzea

5.3. programa: Hondakinen kudeaketa jasangarria

5.3.1. E: Hondakinen murrizketa eta banaketa sustatzen jarraitzea

5.3.2. E: Birziklatze sistema berria ezartzea, hobarien bidez

5.3.3. E: Sentsibilizazio kanpainak ezartzea hondakinen kudeaketari dagokionez

5.3.4. E: Autokonpostajea sustatzea

5.4. programa: Udalerriko kalitate akustikoa

5.4.1. E: Trafikoaren ondoriozko zarata emisioak kontrolatzea

5.4.2. E: Tabernetako zarata emisioak kontrolatzea

5.4.3. E: Zarataren mapa berrikustea

5.5. programa: Energiaren eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriak bultzatzea

5.5.1. E: Argiteria publikoaren eraginkortasun energetikoa hobetzea

5.5.2. E: % 100ean iturri berriztagarrietatik sortutako energia berdea kontratatzen jarraitzea

5.5.3. E: Udal-eraikinen energia-ziurtagiria hobetzea

5.5.4. E: Udaleko ibilgailuak ibilgailu elektriko eta/edo gas bidezkoekin ordezkatzeta, apurka-apurka

5.5.5. E: Herritarren eraginkortasun energetikoa sustatzea

5.5.6. E: Elektro-gasolindegia jartzea

5.6. programa: Kutsadura elektromagnetikoaren kontrola

5.5.1. E: Ministerioko antenen inbentarioan kontrastea eta jarraipena egitea eta neurketa berriak egitea